



## GIPUZKOAKO ESKOLA KIROLEKO MULTIKIROLA PROGRAMA COVID-19AREN AURREAN JARDUTEKO ANTOLAKUNTZA ETA JARDUKETA ARAU ESPEZIFIKOAK, 2020-2021 IKASTURTERAKO

### 1. Zer da Multikirola eskaintza?

Multikirola 9-12 urteko ikasleei (Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. mailak) zuzendutako programa bat da, jarduera fisikoa eta kirola praktikatu nahi duten Gipuzkoako ikasle guztiei irekia, haien kirol maila, maila sozioekonomikoa, bizilekua eta abar edozein izanik ere. Jarduera hezigarria da batez ere, eta ikastetxea du ardatz nagusi. Lau ikasturteetan zehar, irakaskuntzako eta lehiaketako jarduera fisikoak eta kirol modalitateak ezagutzea proposatzen du.

Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako eskola kiroleko [urteko jarduera programaren](#) barnean dago Multikirola programa.

Gipuzkoako Lehen Hezkuntzako ikastetxeen bidez eskaintzen da.

Informazio gehiago nahi izanez gero: <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/kirolak/eskolakirola>

### 2. Neurri espezifikoak, COVID-19ak eragindako egoerara egokitzeko.

#### a. Antolaketa alderdiak

- Irakaskuntza saioen edo entrenamenduen bidez soilik emango zaie hasiera jarduerari. Hasieran, baimentzen ez den bitartean, ez da lehiaketa jarduerarik edo topaketarik egingo.
- Multikirola programan debekatuta dago hainbat ikastetxetako ikasleen artean baterako jarduerak egitea, baita ikastetxearen barruan bertan ere, ikasle taldeen arteko harremana murriztuko baita.
- Taldeek gutxienerako eta gehieneko izen emateen kopuruari eta monitore/ikasle ratioari buruzko irizpideak mantenduko dituzte, baina jarduerak azpitaldeetan banatuta egingo dira. Taldeak 10 izen emate baino gehiago baditu, saioak 8 ikasleko azpitaldetan egingo dira gehienez.
- Saioak edo entrenamenduak ahalik eta indibidualizatuenak izango dira, eta, ahal dela, ahalegina egingo da egin beharreko ariketetan pertsonen arteko gutxienerako segurtasun distantzia mantentzeko (gaur egun 1,5 metrokoa da).
- Ahal den neurrian, ikasgeletako talde egonkorrak mantenduko dira.
- Era berean, ahal den guztietan, jarduerak eta lehiaketak aire zabalean egingo dira.
- Ahal den neurrian, materialen erabilera partekatua saihestu behar da. Lehiaketa/jarduerarako ezinbestekoak diren erabilera komuneko materialei gomendatutako higiene eta garbiketa neurriak aplikatuko zaizkie. Gainerako materialak (edariak, elikagaiak, sendagaiak, etab.) ezin izango dira partekatu.



- Debehatuta dago aldagelak erabiltzea, egoerak hala gomendatzen duenean izan ezik (eguraldi txarra, lehiaketak egiteko joan-etorriak egin beharra, etab.). Aldagelak erabili behar badira, babes arauak eta administrazio eskudunak ezarritako pertsonen arteko distantzia fisikoa errespetatuko dituen sistema bat ezarriko da. Txandak eginez gero, jarduerak garatzeko ezarritako taldeak hartuko dira kontuan.

### **b. Osasun protokoloa eta arduraduna.**

- Multikiroleko jarduerak eskaintzen dituzten ikastetxeek, hasi aurretik, Gipuzkoako Foru Aldundiari entregatu beharko diote **protokolo** bat, bermatuko duena eskolako kiroleko jarduerak higiene eta urruntze neurri guztiak eta agintariak ezarritako beste edozein arau betetzen dituela, bai eta kasu bat detektatuz gero nola jokatu behar den ere.
- Halaber, jarduera hasi aurretik, **erantzukizunpeko deklarazio** bat aurkeztu beharko dute administrazio eskudunaren aurrean, entitatean onartu duten protokoloaren arabera jarduten dutela adieraziz. (Ikus erantzukizunpeko deklarazioaren eranskina)
- Jardueretan parte hartzen duten entitateek edo pertsonak protokoloa ezagutzen dutela bermatu beharko da, eta, horretarako, entitatearen webgunean argitaratu beharko da gutxienez.
- Entitate antolatzaile eta parte hartzaileek pertsona bat izendatu beharko dute beren eskumenen eremuan ezarritako protokoloa betetzen dela bermatzeko. **Osasun arduraduna** izango da pertsona hori (oro har, ikastetxeko eskola kiroleko koordinatzailea izango da osasun arduraduna). (Ikus eranskina. Osasun arduradunaren izendapena)
- Entitateek dokumentu sinatu bat eskatuko diote kirolari bakoitzaren aitari, amari edo tutoreari, non, gutxienez, parte hartzeko baldintzak onartzen diren, derrigorrezko higiene eta prebentzio neurri pertsonalekiko konpromisoa adierazten den, COVID-19ak kutsatzeko aukeraren aurrean erantzukizuna hartzen duen, eta, beharrezkotzat jotzen badute, osasun agintariak ezarritako arrisku talderen batean dagoen parte hartzaile bat dela adierazten duen. (Ikus eranskina. **Senideen deklarazioa**)

### **c. Prebentzio eta higiene neurriak.**

- Entitatearen jarduera protokoloak (ikus ereduak) honako hauek jaso beharko ditu: joan-etorrietarako ibilbideak, helmugak/irteerak mailakatzea, jardueren ordutegiak, ilarak kudeatzeko sistema, edukiera, jende pilaketak saihestea, informazio kartelak eta seinaleak, materiala desinfektatzea, eskuak garbitzea eta abar. Hartutako neurriek kirol instalazioen edo espazioen entitate titularrek eta osasun agintariak ezarritako arauak errespetatu beharko dituzte.
- Eskuen higieneari begira, ziurtatuko da pertsona guztiak beti eskura izango dituztela eskuak garbitzeko ura, xaboa eta eskuak lehertzeko papera, eta, posible ez bada, gel hidroalkoholikoak.
- Era berean, erabilitako babes materialak (maskarak) behar bezala botatzeko elementuak emango dira.
- Kirol instalazio edo espazio propioak erabiltzen badira, garbitasuna eta desinfekzioa bereziki zainduko dira garbiketa programa trinko baten bidez, eta pertsonen eskuekin maiz kontaktuan dauden objektuen eta gainazalen desinfekzioa egiaztatuko da.
- Era berean, espazioko aireztapen naturala eta mekanikoa handituko da.



#### **d. Maskaren erabilera.**

- Osasun arloko agintariek une oro zehaztutako moduan erabili beharko dira maskarak.
- Ez da nahitaezkoa izango jarduera fisikoa egiten den bitartean maskarak erabiltzea.
- Teknikariek maskara jantzita eduki beharko dute beti.
- Osasun alorreko agintariek baimendutako pertsonak (arnasketa arazoak, desgaitasunak eta abar dituztenek) ez dute maskara jantzi beharko.
- 

#### **e. Osasun egoera kontrolatu eta inor gaixotzen bada nola jokatu.**

- Parte hartzen duten ikasleek eta entitateko gainerako langileek, COVID-19arekin bateragarri diren sintomarik ohikoenak badituzte, hala nola, 37<sup>º</sup>-tik gorako sukarra, hotzikarak, eztula, aire faltaren sentazioa, usaimena eta dastamena gutxitzea, eztarriko mina, muskuluetakoa mina, buruko mina, ahultasun orokorra, beheakoa edo gorakoa, ez dira jarduerara joan behar; ezta COVID-19aren sintomak edo gaixotasun hori diagnostikatuta duen pertsonaren batekin gertuko kontaktua izateagatik etxean berrogeialdia egin behar dutenak ere.
- Parte hartzen duten ikasleen gurasoek edo tutoreek egunero egiaztatu eta ziurtatu beharko dute kirol jarduera hasi aurretik, haurrek ez dutela COVID-19aren sintomarik. Era berean, etxeko inori COVID-19a diagnostikatu badiote, horren berri eman beharko diote zentroari berari eta osasun arloko agintariei, eta haurra etxean eduki beharko dute. Horretarako, familiek idatzizko konpromisoa hartuko dute ikasturtearen hasieran dagokien kirol entitatearekin. (Ikus eranskina. Familien deklarazioa)
- Baldintza bera bete beharko dute teknikariek eta eskola kiroleko jardueretan parte hartzen duten gainerako pertsonak. (ikus eranskina, teknikariak).
- Era berean, kirol entitateko ikasle edo langile batek COVID-19an positibo ematen badu, protokoloa betetzeko izendatutako entitateko arduradunak Osakidetzako zerbitzuetara bideratuko du kasua, dagozkion osasun protokoloak aplikatzeko.
- Ikasleren batek COVID-19aren sintomak izan ditzakeela susmatzen bada (sukarra, eztula, arnasa hartzeko zailtasuna, etab.), ikastetxeak edo entitate antolatzaileak (guraso elkarteak edo beste batek) familiari jakinarazi beharko dio, ikaslearen bila joan daitezten. Familia osasun zentroarekin jarriko da harremanetan, bertan haurraren egoera baloratu dadin. Balorazioa egin arte, haurra isolatuta egon beharko da etxean. Kirol entitateko gainerako langileek gaixotasunaren sintomak badituzte, etxera joan beharko dute, eta gomendio berberak jarraitu.
- Ardura printzipio gisa, taldeko pertsona batek sukarra duenean edo COVID-19aren sintoma nabarmenak dituenentzako entrenamendu, saio edo lehiaketa baten aurretik, honako hau ezarriko da:  
Saioak bertan behera geratuko dira entitateko osasun arduradunak oniritzia eman arte, osasun alorreko agintariei jakinarazi ondoren.

#### **f. Entitateko osasun arduraduna.**

- Protokoloa aplikatzeko izendatutako pertsonak ziurtatuko du protokoloan jasotako neurriak eta arauak betetzen direla, eta, betetzen ez badira, dagozkion diziplina neurriak aplikatuko ditu bere jarduera eremuan.



- Entitatean jarduten duten langile edo boluntario guztiei jakinarazi beharko dizkie jada ezarrita dauden prebentzio eta higiene neurriak eta jarduerari aplikatzen zaizkien arauak edo balizko murrizketak. Jarduerak hasi baino lehen, neurri horien berri emango da, edo bestela jarduerak amaitu eta gero, baldin eta entitatearen protokoloa edo osasun alorreko agintarien gomendioak aldatzen badira.

#### **g. Eskola kiroleko teknikariak.**

- Begiraleak ezarritako prebentzio eta higiene neurriak azaldu behar dizkie ikasleei, baita jarduerari aplikatzen zaizkion arauak edo balizko murrizketak ere.
- Bere kargura dagoen ikasleren batek COVID-19rekin lotutako sintomarik badu, kirol jarduera fisikoa egiten ari den bitartean hori egiaztatzeko ardura izango du, eta egoera horren berri eman beharko dio entitateko protokoloaren arduradunari.
- Teknikariak ikasleen portaerak kontrolatuko dituzte, eta, arauak betetzen ez badituzte, beren jardura eremuari dagozkion diziplina neurriak aplikatuko dituzte.

#### **h. Prestakuntza eta dibulgazioa.**

- Entitateetako eskola kiroleko eta osasun arduradunek, bai eta teknikariak ere, COVID-19aren aurkako prebentzio eta jarduera neurriei buruzko oinarritzko prestakuntza bat egin beharko dute online, gainbegiratzen edo zuzentzen duten jarduerak hasi aurretik. Pertsona horiek ezingo dute eskola kiroleko programetan jardun dagokion entitatean prestakuntza jarduera gainditu izanaren ziurtagiria aurkeztu gabe. Kirolaren Euskal Eskolak garatuko du prestakuntza hori.
- Kirol entitateek COVID-19aren aurkako prebentzio eta jarduketa neurriei buruzko informazio materialak zabaldu beharko dituzte jardueretan modu batera edo bestera parte hartzen duten kolektiboen artean (kirolariak, teknikariak, familiak, etab.). Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kiroletako webgunean edo Eusko Jaurlaritzaren webgunean egongo dira eskuragarri material horiek.

#### **i. Edukierak.**

- Kirol instalazioetan, oro harreko edukiera baimenduaren % 60 izango da kirola egiteko baimendutako gehieneko edukiera.
- Ezin izango da ikuslerik edo partaide taldekoa ez den bestelako pertsonarik sartu. Honako hauek bakarrik sartu ahal izango dira kirol espazioan: ikasleak, ikasle taldearekin eskola lizentzia duten teknikariak eta antolakuntzako langileak; kirol entitateetako osasun arduradunak eta eskola kiroleko arduradunak, dagokion administrazioan hala egiaztatuta badaude; jarduerak egiten diren kirol instalazioetako langileak; edo administrazio publikoek baimendutako beste pertsona batzuk. Lehiaketetan kirol espazioetara sartu nahi duen edonork lizentzia edo ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko du sartzeko eskubidea duela.
- Bi ate edo gehiago daudenean, sarrera eta irteerarako erabilera bereizia ezartzeko ahalegina egingo da, jende pilaketak sortzeko arriskua murrizteko.

#### **j. Gizarte desabantailan dauden kolektiboak babestea**



- Entitate antolatzaile eta parte hartzaileek, ahal duten neurrian, neurriak ezarri beharko dituzte baliabide gutxien dituzten eta COVID-19aren pandemiak ekonomikoki kaltetu dituen familiek kirol jarduera egin ahal izan dezaten.

### 3. Alderdi administratiboak

#### a. Izen emateak.

- Izen emateak, ohi bezala, eskola kiroleko programaren aplikazio informatikoaren bidez egingo dira.
- Izena emateko epeak malguagoak izango dira epeei dagokienez, izena emateko epearen hasiera atzeratuko da eta abendura arte irekita egongo da.
- Izen ematea egiteko, beharrezkoa izango da entitatearen erantzukizunpeko deklarazioa aplikazioan bertan betetzea eta COVID-19 protokoloa aplikaziora igotzea (protokolo eredu ematen da).

#### b. Bildu beharreko protokoloa eta dokumentazio espezifikoak.

- **Covid-19aren aurrean jarduteko protokoloa.** Ikus arau orokorretan oinarritutako protokolo eredu (I. eranskina).  
Multikirola programan ikastetxetik kanpo hirugarrenen antolaketarekin egiten diren jarduerak egiten badira, antolatzaile materialari protokoloa eskatu beharko zaio eta aplikazioan sartu, ikastetxeko protokoloarekin batera.
- **Entitatearen erantzukizunpeko deklarazioa.** Halaber, aipatu bezala, entitate parte hartzaileak COVID-19aren prebentzio neurriak betetzeari buruzko erantzukizunpeko deklarazioa bete beharko du eskola kiroleko aplikazio informatikoan.
- **Entitateko osasun arduradunaren izendapena** (Ikus III. eranskina). Ikastetxean bertan gorde beharko da.
- **Parte hartzaileen partaidetza onespina.** Parte hartzaile guztiek (arduradunek, teknikariek, familiek eta tutoreek) entitatearen COVID-19 jardura protokoloaren onespina (IV. eta V. eranskinak) aurkeztu beharko dute entitatean, eskola kiroleko programan parte hartu ahal izateko ezinbesteko baldintza gisa. Ikastetxean bertan gorde beharko da.
- Aipatutako dokumentazio guztia zentroan bertan gorde beharko da, eta eskuragarri egon beharko du, agintari eskudunek eskatuz gero.

#### c. Nahitaezko prestakuntza ikastaroak.

- Entitateko arduradun eta teknikari guztiek egin beharko dute ikastaro hau: COVID-19aren aurkako prebentzio eta segurtasun ikastaroa eskola kirolean Ikastaroa online eta doakoa izango da (azalduko dugu bertara nola sartu).



**SARBIDEA eranskinetara eta aplikatu beharreko gainerako**

**dokumentaziora:** <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/kirolak/coronavirus-informazioa>

## **Informazio gehiago.**

**Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskualde bulegoak**

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/kirolak/nortzuk-gara/non-gaude/eskualde-bulegoak>

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzua

Telefonoa: 943 11 24 97 / 94

Helbide elektronikoa: [kirolak@gipuzkoa.eus](mailto:kirolak@gipuzkoa.eus)